

Gaitzespenaren balioaz gehiago

• JOXE AZURMENDI •

[FILOSOFIA]

Monsignore Setienek behin baino gehiagotan gaitzetsi du biolentzia, alde batekoa zein bestekoa. Eta gaitzespen horiek behin baino gehiagotan gaitzitu izan zaizkie alde bateko zein bestekoi. Hala ere, gizakion historiak izaten diren bezala, ez litzateke apika harrigarria, bestela elkarrekin inola burutu ezin duten alderdi biolentok, ez batek ez besteak maite zuten Setien bezalako bat hautatzea, bien artean elkarriketa eta negoziazioa bideratzeko. Eta zer? Gotzain Jaunaren predikazioa, —biolentzia ororen gaitzespena—, ez litzateke alferrikakoa izan izango, esango du agian norbaitek. Konklusioak, «kondenatu egin behar da», ematen du.

Biolentziaren kondena efikaza da. Ez da dudarik. Etsaia demonizatzeak, adibidez, efikaza da. Baina, biolentzia gainditzeko?

Ipar Irlandan John Hume alde batekoek zein bestekoei kritikatzeko omen zuten, bateko zein bestekoen biolentzia kritikatzeko zuenean (pentsatzekoa da, biolentziaren aurka eta bakearen alde arrazoi politikoak emango zituela, politiko denez). «Eta, begira, azkenean berak bideratu ditu bage negoziazioak».

De facto horrelako zer bait oso gerta litekeena da, politiko eta soziologikoki nahiko erraz esplikatzea, indar kontrajarriek irtenbide negoziatu bat bilatzea erabakitzen badute. Zubia hirugarren batek egin beharko du. Eta zer? Uste dut, inon izatekotan, hemen dugula garrantzizkoa berezten jakitea. Bat: elkarriketak bideratzeko norbait zubizat hautatu izanak ez du esan nahi, elkarriketak hasteko kausa ere bera denik. Bi, orain gehiago inportatu zaiguna: Setien Jaunak biolentzia kondenatu du,

baina Setienek biolentziaren kondena inoiz ez da izan politikoa. Monsignore Setien Gotzaina da. Politiko batzuek Gotzainak baino Gotzainago jokatu gura izatea, paperak eta responsabilitateak interesatuki deboilatzea da.

Kondenak eta kondenak daude, ez genituzke nahastu behar. Kondena erlijiosoa dago (edo hemen berdintzat joko dugun etikoa) eta kondena politikoa dago.

Norbere konbentzimendutik inork egiten duen kondena pertsonala dago, bidezkoa; eta konbentzimendu hori besteri inposatzeko xantaia politikoa dago, bidegabekoa. Kondena politikoa egon liteke, etikoa egon gabe; edo nire kondena egon liteke, beste inorena esigutu gabe, etc. Savaterren aburuan ETaren biolentzia ezin da etikoki gaitzetsi, politikoki bai. Beste askori entzuten diogunez, etikoki bai, eta gero berdin dio politikoki bai ala ez.

Biolentzia ororen kondenak badu bere

lekua gizartean. Ez dugu, Jesus Nazaretekoaren hitza gure kulturen soberan dagoenik, inola pentsatuko. Are, inportantea da mezu hori orduan eta ezor-duan norbaitek guztioi gogoratzea behin eta berriro. Machiavellik holaxe aholkatua egon arren, onartezina, hitz hori politikoei erreminta politiko bezala erabiltzea da.

Printzipioz biolentzia ororen kondenak bere sentidua eta bere legitimitatea du hortaz. Baina bere sentidua horixe da, duena (ez politikoa, askoz erradikalagoa baizik). Eta praktikan legitimoa izateko eta zinez sentidorik izateko, mendebaleko kulturaren adibidez, bere bere problemak ere badauzka: gizarte batean legitimaziorik eta sentidorik izateko erlijioak (edozein postura *absolutuk*) dituen problema berak gutxi gorabehera.

Batzuk, koherentzia problemak dira (ez dago, biolentzia oro kondenatu eta berdenboran kapelau militarrek, edo Santa Joana d'Arc aldareetan edukitze-rik). Beste batzuk, oinarritutako logikorekin problemak: zeren izenean justifikatzen da biolentzia ororen kondena? («bizitza sakratua da», etab., oinarritu nahi duten arrazoiak baino oinarritutako gogor berak). Beste batzuk politikokoak izan litezke: biolentziaren kondena izpiritualenak ere, denboran eta espazioan egiten dira, eta ez dira sekula osoki neutralak eta politikoki inofentsiboak ateratzeki. Etab. Bere problemak dauzka, bai, baina nahikoa eta gehiago legitimazio gelditzen zaio oraindik, «masail batean jotzen bazaitue, erakustazu beste masaila» aginduz, piztiak izateko jarioak ez gabela, irakatsi nahi dugun mezu ebanjelikoak. Mezuak, ordea, bere baldintzak dauzka. Parroko batek bezala hitz egin eta kabroi batek bezala izorratu egiten duen Barne Ministroa, ez da mezuaren

igorie legitimatua. Ez luke hain zaila izan behar, biolentziaren kondena ebanjeliko bat eta biolentziaren kondena estriktoki politiko bat bereztea. Logika diferentetan daude. Esfera diferentetan daude. Esate baterako —eta ez da aspektu txiki bat besterik—, kondena politiko razionalak, xede batekiko efikazia politikorekin arrazoi eman beharra ditu: «helburu horretarako, bakezko bidea, honela eta horrelaxe, hobe da; biolentziaren biktimak horiek ezinbesteko prezioztat hartzeko, ez dago inolako justifikaziorik efikazia aldetik»

(planteamendu politiko batean biktimak ez dira biktimak besterik).

Esanak esan, Gandhik hori egin du, Satiagraha bere borroka ezbiolentia, ez etikoa bezala, baizik ingelesaren aurka efikazena bezala proposatuz.

Kondena ebanjeliko batek, aldiz, efikazia politikorekin axolarik ez du; inolazioa biolentziaren atzaparretan guztiz edertzat har ezake (eta biktimak irabazleak dira; zeruan).

Honek ez du esan nahi, biolentzia ez dagoela politikoki kondenatzerik, edo politikoei ez daukatela biolentzia kondenatzerik. Esan nahi duen guztia da, kondena politikoko politikoa izan behar duela

—demokrazian demokratikoa—, ez beste tranpa erlijioso-politiko konfuso bat gehiago propagandarako, «biolentzia oro» eta antzeko diskurtso absolutista Erregimen Zaharrekoekin.

Adibidez, presoen desertsioaren edo Mahai Nazionalaren *bahiketaren* kritika politikoa, eta politiko hutsa, modu askotan egin liteke, horien kondena Estatu-ko legeen izenean hasi eta demokraziaren sentidua edo herrietako bizigiro anaikorraren arrazoiarekin amaitzeraino. Azkenean, justiziaren perbertisio handiena justiziaren praktika batzuk direla (ordena sozialaren esistentzia bera deslegitimatuz; jendea *basa-egoerara* itzultzea legitimatuz hortaz), Voltaire ez bereziki ebanjelikoak aspaldi oharatu zuten, kontsiderazio politiko hutsetatik milimetro bat ezertarako atera gabe.

Biolentzia ororen kondena, Max Weberren berezuntza ^{ez gogor} terminoetan esateko, «konbentzimenduen etikari» dagokio; politikoa, «erantzukizunaren etikari». Oso ongi dago adieraztea, zentzu honetan, joan den ostiralean Xabier Gurrutxagak EUGUNKARIAN idatzi legez, «bakearen beharra norberaren konbentzimenduen ondorio denean, biolentziaren gaitzespena ez da antzutasun edo eraginkortasun kontu bat, norberari eta besteei zor diegun leialtasuna baizik». Bakarrik, hori ez da problema ren hasiera besterik. Beren konbentzimendu intimoaren ondorioa da orobat Jehovaren Lekuontzat odol transfusioa kondenatzea. Horixe delako, errespetatu egiten ditugu, horixe besterik ez den artean. Nekez onartuko dieguna, beren konbentzimenduen ondorioa, biziera publikoan beste ere esigitzea, izango da. «Erakustazu beste masaila» nekez onartuko dugun bezalaxe Estatuaren printzipiotzat, gure gizartean asko izan arren ebanjelioarekin konbentziatuak. Biziera publikoa, bakotzaren konbentzimenduetan baino, beste arau batzuek arautzen baitute demokrazian. Elementala da Erregimen Zaharra eta demokrazia bereziteko.

“
Kondena politikoak politikoa izan behar du, ez beste tranpa erlijioso-politiko konfuso bat gehiago propagandarako, «biolentzia oro» eta antzeko diskurtsoekin

“
Biolentziaren kondena efikaza da. Ez da dudarik. Etsaia demonizatzeak, adibidez, efikaza da. Baina, biolentzia gainditzeko?